

Euskal AEko Eraikuntzaren negozio-zifra %1,4 gutxitu zen 2014an

Inbertsioa %43,5 gehitu

2014an Euskal AEko Eraikuntzaren negozio-zifra garbia %1,4 gutxitu zen aurreko urtearen aldean, Eustaten datuen arabera. Inbertsioa %43,5 gehitu; 2013ko 324 milioitik 2014ko 465era.

2013an baino 2.780 lanpostu garbi gutxiago; pertsonal-gastuak %5,9 jaitsi, langile okupatuen jaitsiera baino puntu eta erdi gainetik.

Eraikuntzako aldagai nagusiak. Euskal AE. Prezio korrronteak (mila €)


	2014	2013	Δ %
Landunak	60.338	63.118	-4,4
Negozio zifraren zenbatekoa guztira	9.950.077	10.093.411	-1,4
Hornimenduak	5.388.182	6.027.905	-10,6
Kanpo-zerbitzuak	1.176.099	1.229.895	-4,4
Langileria-gastuak	2.305.572	2.450.799	-5,9
Amortizazioetarako zuzkidurak	205.411	230.458	-10,9
Emitza zergak ordaindu aurretik	-301.569	16.407	-
Eragiketa jarraituetatik ekitaldiaren emitza	-404.968	-25.089	-
Egindako inbertsioak	465.057	324.044	43,5

Iturria: Eustat. Eraikuntzaren estatistika

2014an, negozio-zifra garbia: Gipuzkoan %+1,8; Bizkaian %-1,9; Araban %-7,4.

Langile 1etik 19ra bitarteko establezimenduetan, fakturazioaren %73,2 eta langileen %75,7. 20-49 langileko enpresetan enpleguaren %12,5 eta fakturazioaren %12,9. 50-99 bitarteko enpresetan, enpleguaren %5, negozio-zifraren %6. 100 langile edo gehiagokoetan, fakturazioaren %7,9 eta langileen %6,8.

1. grafikoa. Langile okupatuen eta balio erantsian banaketa jarduera taldearen arabera. Euskal AE.2014




Iturria: Eustat. Eraikuntzaren estatistika

Eraikuntza barruko jarduerak faktoreen kostuan erantsitako balioari eta langile okupatuen banaketari begiratuz gero, **Instalazio elektrikoak, iturgintza eta beste instalazioetan** dugu enplegatuen %30 eta balio erantsiaren %26. **Eraikinen akabera** enpleguaren %23 eta balioaren %14. **Eraikinak eraikitzean** enpleguaren %19 eta balioaren %24. **Higiezinaren sustapenean** balioaren %15 eta enpleguaren %6.

Ondasunaren **azken erabileran**, ez da askorik aldatu etxegintzaren (sustapenarekin batera) eta obra zibilaren arteko salmenta banaketa azken urteetan. 2014an etxegintzak (%58) sustapenarekin (%18) batera, salmenten %76 hartu zuen, 2013an bezalaxe eta 2012an eta 2011n baino puntu bat azpitik. Ba dago aldaketa zaharberritzearen eta obra berriaren arteko jardueraren banaketan, batez ere etxegintzan, non lehenengoa nagusitzen den. 2014an eraikinak zaharberritzeak ekarri zituen salmenten %28, bi urte lehenago baino 6 puntu gehiago; obra berrian 2012ko %35etik %2014ko %30era jaitsi, bost puntu. Obra zibil berria salmenten %13 2014an, 2012an baino bi puntu gutxiago.

2. grafikoa. Eraikitako ondasunaren arabera salmenta banaketa



Iturria: Eustat. Eraikuntzaren estatistika

Informazio gehiago:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística
Donostia-San Sebastián, 1. 01010 Vitoria-Gasteiz
Prentsa zerbitzua: servicioprensa@eustat.es Tel.: 945 01 75 62
[Euskal AEko eraikuntzaren estatistikari buruzko prentsa-ohar gehiago](#)
[Euskal AEko eraikuntzaren estatistika -datu bankua](#)